

Trabajando

BAZTAN



Lanean



GERTATZEN DIREN GAUZAK

Legegintzaldi hau ekainaren 17an hasi zen, baina Baztango Udalean sailak daude, Nekazaritza, Abeltzaintza, Basoak, Hezkuntza, Gizarte Zerbitzuak edo Osasuna adibidez ez dira batzorde espezifikoak, horregatik ez dira al-dian aldiko bilerak egiten esparru horiekin harremana izan dezaketen gaiak jorratzeko. Dirudienez, zinegotzi batzuek eskusiban lantzen dituzten gaiak dira, haien ezagutzaren arabera eta haien erabakien arabera. Ez dirudi funtzionatzeko oso modu logikoa ez eta normala ere, baina horrelakoak dira gauzak. Kultura alorra, adibidez, behin bakarrik elkartu da, legegintzaldia hasi eta sei hilabetera, eta bailarako kultura taldeei eman beharreko dirulaguntzak kalkulatzeko izan da. Besteak ez dira behin ere ez elkartu, baina egia da udalbatzaren osoko bilkuretan, hilean behin, gai horiekin

harremana duten gaiak jorratu direla. Honek esan nahi du ez dagoela garatzen den jardueraren inguruko informaziorik eta zerbait jakin nahi bada, galdetu beharra dagoela. Nafarroako Gobernuako Ingurumen Departamentuak ganaduarentzako larreei bideraturiko dirulaguntzak iragarri zituela jakinarazi zitzaion urriaren 2an Alkatetzari eta Idazkaritzari, horregatik proiekturen bat aurkeztea aztertzeko eta iragarritako dirulaguntzak eskuratzeko helburuarekin bilera eskatu genuen, eta proiektuak aurkezteko epe-muga urriaren 30 zela ohartarazi zen. Gezurra dirudien arren, ez zen bilerarik deitu, epea amaitu zen eta ez zen proiekturik aurkeztu. Azaroaren 23an, osoko bilkuran eta eskaera eta galderen txandan, eskatutakoa zergatik ez zen egin azaltzea eskatu zen. Erantzunean ez

zen justifikazio handirik eman, "beste deialdi eta laguntzak egongo zirela" esan zen eta nahiko modu zakarrean zera erantzun zen ere, batzorde horiek ez zutela zertan elkartu behar eta ezin dela egiten denaren gaineko informazioa eta azalpenak etengabe ematen egon. Horrelaxe. Ezta ere egiten ez denari buruzkoa, gaineratu beharko genuke.

Gure ustez Baztango Udalak komunikazio arazo larria du eta baztandarrori eskaintzen zaigun informazioa ezin urriagoa da, eta adibidez gogorarazi beharra dago duela 11 urte udal talde maioritario berberak, hiru hilabetean behin plazaratzen zen eta bailara osoan banatzen zen Udal Informazioaren Buletina argitaratzeari utzi ziola.

Berriro argitaratzea eskatuko dugu, eta galdetzen jarraituko dugu ere.

Lanak hiru urte eta erdi luzatuko dira.

Baztango Udalak 12 milioi euro inbertituko ditu Egoitzaren zaharberritzean

Baztango Udalak Elizondoko Francisco Joaquín de Iriarte Egoitzaren zaharberritzeari ekingo dio, lanen lehen ekin-tzan 5,2 milioi euro baino gehiagoko inbertsioa eginez eta osotara 12 milioi euro inbertituz lanetan.

Oraingoan, Gobernu zentralak emandako 4 milioi euro jaso dituzte lanek, horietara kreditu batetik datozen beste bi milioi batuz, azken hau osoko bilkuran onartua, Udalak kreditu hori baldintza hobereenak eskaintzen dituen banketxearekin izenpetuko duelarik.

Pertsonak erdian jarriko dituen sistema batera egokitzeko Egoitzaren zaharberritzea eta hobetzea dira lan hauen helburua.

Hasierako lanek eraikin historikoa mantentzea dute helburu, bai eta 70eko hamarkadako gehikuntza antzeko eta garapen handiagoko beste eraikin batekin ordezkatzeko. Eraikin modernoaren zati bat eraitsiko da bizikidetzarako unitateak bereziki hartuko dituen bolumen bat eraikitzeko, bitartea egoitzaren gainontzeko zatia funtzionamenduan mantenduz.

Bigarren fasean, geratzen den zati modernoaren eraitsiko da ere bolumen berri bat eraikitzeko, bertan harrera lekua, garbitokia, sukaldea eta beste batzuk kokatuz beheko solairuan, eta bizikidetzaren unitateak lehen solairuan, era berean egoitza funtzionamenduan mantenduz.

Eta hirugarren fase batean eraikin historikoa egokituko da, sotoa zerbitzu gune moduan moldatuz, beheko solairua amankomuneko

espazio moduan egokituz eta lehen solairua bizikidetzaren unitate bihurtuz.

Instalazio berriekin plaza kopurua murriztuko da, egungo 155 plazetatik 199ra igaroz. Azken azaroan egoiliarren 145 ziren eta lanen ondorioz horietako batzuk lekualdatzeko beharra egongo da, aldaketa hori behin betikoa izango delarik zentro berriaren edukiera murriztu ondoren. Era berean, zentroko langile-ria ere murriztu egingo da.

Bestalde, azken urteetan egoitzaren kudeaketa burutu duen enpresarekin zegoen kontratua amaituz eman da, kudeaketa publikoa izatera pasa da eta Zaintza Lanak enpresa publikoak hartuko du bere gain. Era berean, egoera berriarekin, egoitza sortu zenetik existitzen zen Patronatua desagertuko da ere.

Azaroko lehen hamabostaldian, Baztan Zurekin, Baztango Independentek, Unión del Pueblo Navarro-UPN eta Baztango Geroa Bai udal taldeak elkarturik, Alkatetzari eskatu genion bailarako herritarrei zuzenduriko jardunaldi informatiboak antolatu zitzaizkion edo proiektua azaltzeko eskuorriren bat argitaratu zezan, Baztango Udalak historikoki burutu duen inbertsio ekonomiko handiena baita eta orain arte iritsi den informazioa komunikabideek eskaini dutena bakarrik izan baita. Orain arte ez da halakorik egin, nahiz eta egungo egoiliarrei eta haien familiei eta langileei ere zuzenduriko bilera informatibo bat egin den.

Alkatetzari eskatu genion bailarako herritarrei zuzenduriko jardunaldi informatiboak antolatu zitzaizkion edo proiektua azaltzeko eskuorriren bat argitaratu zezan, Baztango Udalak historikoki burutu duen inbertsio ekonomiko handiena baita



Eskatu dugu...

...Foruen Plazako udal eraikinean duela bederatzia hilabete baino gehiago erori zen plaka berri jar dadila, irudi negatiboa ematen baitu eta instalazio publikoak modu egokian mantentzearekin udalaren

aldetik utzikeria erakusten baitu ere. Udalak ez du ezer egin, Udaletxetik 10 metro inguruko distantziara dagoen arren.

...Eguberrietan kontzertu bat antolatu dadila eta duela ia zazpi hilabete, apirilean, Euskal Herriko Txistulari Gazteen Txapelketan Bilbon lehiatu ziren hiru gazte baztandarrei errekonozimendua eskaintzea. 12 urtetik beherakoen artean Iruritako Aitor Ripa Eritze izan zen txapeldun, eta

13 eta 16 urte bitartekoetan Orkoien bizi den Izar Imbuluzqueta Arroabar Elizondoarrak lortu zuen lehen postua, eta Eneko Irazoki Vielak bigarren postua kategorian berean. Hala egin behar delako eta beste musikari gazte eta musika ikasleentzako adibide direlako.

...Baztango Udalak Kantabriar Konfederazio Hidrografikora zuzendu dadila eta Gitxaurdi parajearen ibaiaren garbiketari eta dragatze lanei lehenbailehen ekin diezaion eskatzea, berriro ere uholdea egoteko zorian egon baitzen azken azaroaren 22an. Ur goraldietan uholde arriskua murrizteko helburuarekin, arrazoi logikoengatik kaltetuenak garen bizilagunoi eta herritarrei orokorrean kezkatzen gaituen gaia baita.

Lander Santamaria
Geroa Bai-ko zinegotzia Baztango Udalean



ANALISIRAKO GUNEA

VALLE DE BAZTAN

Evolución Nacimientos y Defunciones desde 1996 hasta 2021			
Año	Nacimientos	Fallecidos	Diferencia
2021	60	106	-46
2020	56	132	-76
2019	64	69	-5
2018	61	108	-47
2017	61	112	-51
2016	71	99	-28
2015	63	106	-43
2014	75	99	-24
2013	61	96	-35
2012	63	100	-37
2011	81	88	-7
2010	85	96	-11
2009	92	118	-26
2008	97	102	-5
2007	71	96	-25
2006	64	108	-44
2005	86	105	-19
2004	96	107	-11
2003	74	93	-19
2002	74	111	-37
2001	63	122	-59
2000	78	110	-32
1999	58	130	-72
1998	62	118	-56
1997	59	110	-51
1996	34	115	-81

2021eko datuen arabera, Baztanek 7.850 bizilagun ditu, 1996an baino 50 gehiago, nahiz eta gure bailaran jaiotzen direnak baino pertsona gehiago hiltzen jarraitu.

Herritar kopuruaren beharokada naturala, Baztandik kanpo jaiotzen direnen iritsiera oso garrantzitsu batekin orekatzten ari da, bizilagun berri hauei esker beste moduz hutsik egongo liratekeen lanpostu profesionalak betetz. Fenomeno honekin batera, lan adina duten bizilagun asko daude Baztandik kanpo lanean.

Baztango Geroa Baitik bailara bizi bat nahi dugu, enplegu eta aukera gehiagorekin, gazteek euren bitzta hemen

garatu ahal izateko.

Baztanek promozio eta garapen aukera handiak ditu eta aberastasuna eta lan jarduera sortzeko horiek aprobetxatu beharra dago, modu honetan udalerrriak bizi duen une delikatuak gaintuz.

Gure gazteek ikasketak dituzte eta inoiz baino prestatuagoak daude, baina lan egiteko Ultzamarra, Iruñera, Dantxarri-nera edo Luzaidera joan behar dute egunero.

Udalak geldotasun arriskutsua mantentzen du eta ez du hori konpontzeko ezer egiten.

Zer deritzogu egoera honi buruz? Emaiguzu zure iritzia gure blogean: www.geroabaibaztan.wordpress.com



@GeroaBaiBaztan



geroa_bai



Geroa Bai Baztan



Geroa Bai



baztan@geroabai.eus



www.geroabaibaztan.wordpress.com

DL NA 538-2021

